

3.5.0. UDALERRIAK. KOMUNITATE GARAPENA.

LAN-ILDO NAGUSIAK

Gizarte Ekimenetarako Zentro Komunitarioak (GEZK)

Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzua (PEKZ)

Gazteria

Kirola

GIZARTE-EKIMENETARAKO ZENTRO KOMUNITARIOAK

Helburuak:

- a) Elkartegintzaren mugimenduari babes-estrategiak eskaintzea, mugimenduok herritarren parte-hartzea bideratzeko elementua direlako haiek beren identitatearen adierazgarriak bilatu, barneko bitartekoen formulazioa egin eta gatazkak beren kabuz konpontzeko garaian.
- b) Gizarteko taldeak eta belaunaldiak beren artean biltzea, eta beren arteko elkarbizitza eta solidaritatea sustatzea, arriskurik handiena duten pertsona edo taldeen bereizkeria-prozesuak zuzentzeko eta prebenitzeko.
- c) Auzoetako udalaren herri-zerbitzuen maila handitzea, hurbiltasun eta kudeaketa hainbanatzeko irizpideekin, eta bertako biztanleen interes zehatzetara egokitzeak.
- d) Biztanleen inplikazio eta erantzunkidetasuna sustatzea, jardueren martxari eta erabakiak hartzeari eta lehentasunak hautatzeari dagokionez.
- e) Udalaren prestazio tekniko eta ekonomikoen osagarria izatea, lokalen oinarritzko sare bat eskainiz.
- f) Iruñeko Udalak antolatzen dituen Gizarte Ekintzen Egitaraua garatzeko esparru fisikoak eskaintzea.
- g) Udalaren beste arlo batzuetatik auzoetan sustatzen diren prebentziozko ekimen soziokulturalak osatzea eta koordinatzea.

Jarduera nagusien laburpena:

Auzoetako auzo-elkartek erabili dituzte komunitate-zentroak, eta auzook bezain askotari-koak izan dira horietan egindako jarduerak. Jarduera horien artean hauek daude, besteak bes-te: auzoetako jaiak, musika- eta dantza-entseguak, prestakuntza-jardunaldiak eta aisialdiko ekintzak nerabeekin.

Arrosadia auzoak 2018ko urriaren 19an sinatu zuen Iruñeko Udalaren eta Ilargienea GEZK erabiltzen duten taldeen ordezkarien arteko lankidetzaz hitzarmena, komunitate-esparruko era-bilera eta funtzionamendua arautzeko.

PREBENTZIO-EKINTZA KOMUNITARIOKO ZERBITZUA

Helburuak:

Helburu orokorra: Haurren eskubideak sustatu eta defendatzea bere jardun-esparruan (auzo hauek: Sanduzelai, Alde Zaharra, Txantrea, Arrotxapea, Etxebakoitz, Arrosadia, Azpilagaña, Mendillorri, Erripagaina eta Buztintxuri): ume eta nerabeei zuzendutako prebentzioa eta ba-besa, haur eta gazteen auzo-elkarteen eta beste baliabide soziokomunitario batzuen aldetik.

1. Babes komunitariorako lehen mailako prebentzio-egitura bat garatzea, auzoaren testuin-guruetara egokitua.

2. Bigarren mailako prebentzio-jarduerak egitea, auzoan gizarte-egoera zaila duten ume eta nerabeen komunitate-babesaren ikuspegia aintzat harturik. Maila guztietan babesik gabe gel-ditzeko arrisku-adierazleak dituzten adingabeen kasuei buruzkoa da babesa.

Jarduera nagusien laburpena:

2017an, zortzi izan dira auzoetan jarduerak egin dituzten prebentzio-taldeak, Buztintxurikoa gehitu baita. Talde horrez gain, auzo hauetan ere baziren lehendik: Arrotxapea, Txantrea, San-duzelai, Alde Zaharra, Etxabakoitz, Arrosadia-Azpilagaña eta Mendillorri-Erripagaina. Nabar-mentzekoa da zerbitzu horiek zer-nolako gaitasuna duten nerabeek jardueretan boluntario gisa parte har dezaten sustatzeko. Aurten 676 gaztek egin dute. Gainera, aldi berean 461 nera-be eta gaztek komunitate-hezitzaile izateko prestakuntza jaso dute (293 neska eta 168 mutil).